

**LAN BATZORDE IREKIAK****TALDEA****ONGIZATE BATZORDEA****IRAUPENA****ORDU 1****EGUNA****2018-10-09****GAIA****-****DEIALDIA****19:00****PARTE HARTZAILEAK**

Iñaki Etxezarreta

Endika Igarzabal

Arantxa Bidegain

Xabier Barriola

Jabier Garcia

Eli Elgarresta

**ERABAKIAK****GAIA****EKINTZAK****ARDURADURA****NOIZKO****APARKALEKUAK**

- Azken aldian kexak jaso dira herrigunean autokarabana eta karabanak daudelako aparkatuta plaza bat baino gehiago hartuz, eta denbora luzez mugitu gabe.
- Gai honekin lotuta ze ordenantza dagoen enteratzekotan geratu gara. Herri mailan ez dago ezer baina ziurrenik ordenantza orokor bat egongo da.

**HAURTZAINDEGIA**

- Momentuz herrian bi haur daude, eta hirugarren bat behar hartzaindegia ireki ahal izateko.

**ZABORRAK**

- Sasietak beste planteamendu bat egin digu, gu astean egun batzuetan hontzi jakin batzuk soilik irekita edukitzeko proposamenarekin joan garenean.
- Beraien arabera, beste herri batzuetan ere horrela egin da, eta aurrena organikoa zaborgunean jartzea gomendatu digu, eta gero joan pixkanaka mugatzen. Horrela, errefusa kg kopurua jaitsiko litzateke, eta taberna eta elkarteetako zaborraren bila datozenean jasoko lukete.
- Herrigunean soilik jarriko litzateke organikoaren ontzia, eta udaletxean izena eman beharko lukete erabili nahi duten guztiek, txartel berezi batekin funtzionatuko bailuke.
- Gabiriako hainbat etxe Itsasoko gunera zaborra botatzen dutenaren inguruan, ez dago berririk.

**DESFIBRILADOREA**

- Udaletxean eskuragarri jarrita dago, baina ikastaroaren data jartzea falta da formazioa emateko.

**ETXEBIZITZA**

- Arroako proiektua: jabeekin egin zen bilera eta beraien esku geratu zen proiektuari forma ematen hastea.

**TXAKURREN  
ORDENANTZA**

- Herrigunean txakurrak lotu gabe dabiltzala eta kexak jaso dira, eta ordenantza herrian banatu zen. Denon ardura da bete eta betearaztea!!

**HURRENGO BILERA: abenduak 11, 19:00tan**